



Bizkaia *dema*

enplegu eta ekintzaitza foru agentzia

TXOSTENA 2016



 **Bizkaia**

*enplegua, gizarte inklusioa eta
berdintasuna sustatzeko saila*
departamento de empleo,
inclusión social e igualdad



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko enpresa sarea da bizkaitarren ongizatea finantzatzeko ekonomia iturri nagusia.

ETEak zaindu, sustatu, babestu eta laguntzeak ezinbesteko garrantzia dauka ekonomia garapen orekatu eta jasangarria bermatzeko, ahalik eta aberastasunik handiena eta kalitatezko enplegu kopuru gehien sortzeko gai izan daitekeena.

Zentzu horretan, Bizkaiko Foru Andundia, DEMA Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentziaren bidez, enplegua sustatzeko programak garatzen aritu da 1989tik.



Teresa Laespada

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna Sustatzeko
Saileko diputatuak

Irakurtzen ari zaren txosten honek DEMA enplegua sustatzeko orduan Sailaren tresna handi bezala finkatzen dela berresten du.

2016. urtean, Enplegua eta Ekintzailtza Sustatzeko Foru Agentziak bere ohiko jardunaldiari programa berriztatzailea gehitu dio: Enpleguko eta Ekintzailtza Solidarioko Anezkak (Taldeka Ekintzailtza Taldeekin batera). Santa María La Real fundazioaren eskutik eta hainbat lankidetzak publiko pribaturekin (hala nola, Telefónica), ekimen hauek abian jarri dira eta 200 pertsona inguru izan da onuradun. Batez beste ehuneko 20 puntutan hobetu dituzte lanpostua aurkitu edo sortzeko aukerak.

DEMA osasuntsu dago eta agentzia honekin gure konpromisoa ukaezina da. 1989an sortu zen eta mende laurdena baino gehiago darama enplegurako foru estrategien arloan ekimenak garatzen. Bere esperientzia eta lantaldea berebizikoak dira, gure Lurraldean enplegua sortzeko ekimenak ondo ezagutzen dituztelako.

Joan den urtea, txosten honek adierazten duen moduan, ekitaldi bizia izan da eta Agentziak ikuspegi desberdinak, paraleloak eta osagarriak, landu ditu:

- Kultura ekintzailea bultzatzea
- Enpresak sortzea eta sendotzea
- Taldeka-Ekintzailtza taldeak
- Elkarlaneko gizarte ekintzailtza
- Enplegu anezkak
- PRESTIK-Ezkerraldea enplegu feria
- Bizkaiko enplegu behatokia

Beraz, DEMAk Bizkaiko pertsonen zerbitzura jardueren eta programen sorta zabala bultzatu eta garatu du.

Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak DEMAren aldeko apustua indartzen du. Dauden programak mantendu eta enpleguan berrikuntzaren bidetik jarraitzeko, bere gaitasunetan funtsatzen den apustua da.

2016

JARDUERA ILDOAK

ENPRESARI PROGRAMA

Ekintzailletza Lanbide Heziketan

SORTU PROGRAMA

Enpresen sorkuntza

ESKUALDEAK INDARBERRITZEKO PLANA

Enpresen sorkuntza

TALDEKA PROGRAMA

Ekintzailletza taldeak

ELKARREKIN EKINEAN

Enpresen sorkuntza

ANEZKA PROGRAMA

Enplegurako eta ekintzailletza solidariorako anezkak

FERIA PRESTIK-EZKERRALDEA 2016

Enplegu feria

BIZKAIKER

Bizkaiko Enplegu Behatokia



ENPRESARI PROGRAMA

EKINTZAIETZA LANBIDE HEZIKETAN

HELBURUA:

Bizkaiko gazteen artean enpresa-ekintzaitzaren kultura sustatzea.

HARTZAILEAK:

Bizkaiko ikastetxeetako Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleak.

2016KO JARDUERA:

Ekintzaitza eta ideien heltze tailerak

119 tailer egin dira milaka ikasleren sormenezko jarrera eta jokabide ekintzailea sendotzera bideratuak. Horretarako, enpresaburuak izan ditugu eta tailer bakoitzean beren esperientziak azaldu dituzte. Heltze taileretan, partaideek ideia negozio edo enpresa bihurtzeko gakoak kontuan hartzen ikasten dute.

Enpresa ideien lehiaketa

Ikasleek 212 negozio ideia aurkeztu dituzte eta ikus-entzunezkoen aurkezpenez baliatu dira. Bi sarituak suertatu dira: D3Gunea, Calasanzeko San Jose zentroarena, Facebooken bozkatuena; eta Nitro-zombie, San Jorgerena, bideorik onenaren modura hautatutakoa.

Enpresa-proiektuen lehiaketa

Aldez aurretik hautatutako 100 talde epaimahaiaren aurrean beren ideiak defendatzera joan da eta 50 onenak aukeratu dira. Finalera heldu diren 50 ideiek Demako aholkularien laguntza jaso dute; izan ere, aholkulari horiek enpresa proiektua garatzen lagundu diete 3 hilabetean.

Sariak emateko ekitaldia

Demako epaimahaiaren aurrean defendatu ostean, 10 enpresa proiektu hoberenak saritu dira ENPRESARIin parte hartu duten ikastetxeetako ikasleak, irakasleak eta zuzendariak elkartu diren ekitaldian.

ENPRESARI PROGRAMA - EMAITZAK - 2016

URTEA	LANTEGIAK			IDEIAK			PROIEKTUAK		
	Kop.	IKAST.	PARTE HARTZ.	IDEAK	IKAST.	PARTE HARTZ.	PRO.	IKAST.	PARTE HARTZ.
2016	119	31	2.501	212	22	532	50	18	144
HISTORIKOA (2001az gero)	1.366	-	27.466	2.591	-	6.426	605	-	1.571

ENPRESARI PROGRAMA - PROIEKTU IRABAZLEAK - 2016

SARIA	PROIEKTUAREN	JARDUERA	ZENTROA
1.a 1.500€	BIZI, minbizia duten pertsonentzat estetika zentroa	Minbizia duten gaixoentzat zentroa, behar ez-medikoak asetzen espezializatua.	SAN JORGE GLHBI
2.a 1.200€	OREKA	Surf tauletarako orekatzailea	EMILIO CAMPUZANO BHI
3.a 1.000€	G3	Aholkularitza merkataritza txiki eta ertainari	MIKELDI IKASTETXEA
4.a 500€	UR VITAE	Giza kontsumorako edateko ur bihurtzeko sistema eramangarria	ZABALBURU IKASTETXEA
5.a 500€	EGURETXE	Energiaresen ikuspegitik bere eskura aski duten egurrezko etxeak	ERAIKUNTZA
6.a 500€	EUSKOLOKALA	Gazteen lokalak bereizteko pabiloia	CALASANZEKO SAN JOSE IKASTETXEA
7.a 500€	MAITAGARRI MAGIKOA	Haurrentzat arreta osoa: eskola, etxean laguntza eta ikasketetan laguntza	SAN VIATOR IKASTETXEA
8.a 500€	EGURRA EGITURAK	Egurrezko egiturak muntatu, instalatu eta zaharberritzea	OTXARKOAGA IKASTETXEA
9.a 500€	MOVE IT	Zinemari buruzko mahai-jokoa	TARTANGA
10.a 500€	LOVE SALAD	Janari orekatu eta nutritiboaren fastfooda	ANGELES CUSTODIOS



SORTU PROGRAMA

ENPRESEN SORKUNTZA

HELBURUA:

Enpresa-negozioak sortu eta abian jar daitezzen sustatzea, negozio ideiak enpresa proiektu bihurtuz, bideragarritasun eta zehaztasun indize handiekin, aldian behin banakako aholkularitza eskainiz.

HARTZAILEAK:

Bizkaian erroldatuta dauden eta enpresa ideiarekin bat duten pertsonak.

ZERBITZUAREN DEFINIZIOA:

Honako fase hauetan egituratuta dago programa:

• KUDEAKETARI BURUZKO PRESTAKUNTZA EKINTZAILEENTZAT

Iraupena: 30 ordu

Edukia:

- Proiektu bat aztertzeko punturik garrantzitsuenak
- Legezko izapideak eta alderdi juridikoak
- Enpresa kudeatzeko oinarrizko kontzeptuak

• NEGOZIO PLANERAKO AHOLKULARITZA

Edukia: aldian behin bilerak egingo dira banaka, eta, berariazko metodologia erabilia, proiektuan esku hartzen duten aldagaiak aztertuko dira, negozio plana garatuko da, eta plan horrek bide emango du enpresa abian jartzeari buruzko azken erabakia hartzeko. Osagarri gisa, DEMAk aukera eskaintzen du enpresari aplikatu ahal zaizkion laguntzen mapak egiteko eta autoenplegurako BFAREN diru-laguntza izapidetzeko

PROIEKTU BIDERAGARRIA > ENPRESA ABIAN JARTZEA

Laguntzak: Aholkularitza zerbitzurako %100eko diru-laguntza, eta enpresa abian jartzeko gehienez 5.000 euroko diru-laguntza eskuratzeko aukera.

Epeak: Deialdia beti dago zabalik.

SORTU PROGRAMA - EMAITZAK - 2016

2016

Emandako ikastaroak	15
Negozio ideiak	564
Negozio planak	510
Sortutako enpresak	186

HISTÓRICO DESDE


1989

Emandako ikastaroak	118
Negozio ideiak	9.752
Negozio planak	4.357
Sortutako enpresak	2.302

SORTU PROGRAMA - EKINTZAILEAREN PROFILA - 2016

GENEROAREN ARABERA Guztira: 645


Gizonak
53%




NEGOZIO IDEIAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA Guztira: 564

• Merkataritza, konponketak	25,2%
• Profesionalak	22,7%
• Beste zerbitzu batzuk	22,7%
• Ostalaritza	11,1%
• Zehaztu gabe	6,9%
• Eraikuntza	2,5%
• Nekazaritza eta abeltzaintza	1,9%
• Finantzak, aseguruak, enpresentzako zerbitzuak	1,9%
• Artistak	1,7%
• Garraioa eta komunikazioak	1,6%
• Energia eta ura	1%
• Metalen eraldaketa	0,5%
• Beste manufaktura-industria batzuk	0,3%

IKASKETEN ARABERA Guztira: 645



ADINAREN ARABERA Guztira: 645





ESKUALDEAK INDARBERRITZEKO PLANA

ENPRESEN SORKUNTZA

HELBURUA:

Langabeak lanerako aktibatzea, ekintzaitzarako trebatzea, eta gutxienez %60k euren lanpostua sor dezaten lortzea.

HARTZAILEAK, 2016EAN:

Durangaldeko langabeak.

LEHENENGO FASEA:

Hilabetez prestakuntza intentsiboa eman zaie, tailerretan hainbat alor landuz: gaitasunak, ekintzailearen izaera, eskualdearen argazki sozioekonomikoa, sormena, ideien sorrera, ontzea eta gizarte-ekintzaitza moduak. Parte hartu duten 29 pertsonen enpresa ideia bat zehaztuta amaitu dute prestakuntza. Laguntza: 350 euro hilean.

BIGARREN FASEA:

Hurrengo bi hilabeteetan parte hartzaileek euren enpresa ideia bideragarritasuna aztertu dute eta, azkenik, negozio planaren dokumentua egin dute. Jarduera hori egiteko aholkularitza eta banakako laguntza teknikoa eskaini diete DEMAKo teknikariek. Laguntza: 350 euro hilean.

HIRUGARREN FASEA:


2016ean 21 parte hartzailek eskatu dute alta autonomoen araubidean, eta guztira 21 enpresa eratu dituzte, batez ere banako enpresak. Laguntza: parte hartzaile bakoitzari 5.000 euro.



ESKUALDEAK INDARBERRITZEKO PLANA - EMAITZAK - 2016

	DURANGALDEA	HISTORIKO 2013tik
Parte hartzaileak	29	569
Negoio planak	28	446
Sortutako enpresak	21	286
Altak autonomoetan	21	314

SORTUTAKO ENPRESAK -JARDUERAREN ARABERA





TALDEKA PROGRAMA

TALDEKA-EKINTZAIETZA TALDEAK

XEDEA:

Langabeak lanerako aktibatzea, ekintzaitzarako trebatzea, eta gutxienez % 60k euren lanpostua sor dezaten lortzea.

2016. URTEAN TALDE HARTZAILEA:

Ezkerralde, Meatzalde, Bilbo, Uribe Kosta, Getxo eta Leioako langabetuak. Halaber, 45 urtetik gorako Bizkaiko pertsona langabetuak, erantzukizun kargura izan badute.

LEHENENGO FASEA:

Hilabete eta erdiz tailerren bitartez partaideei biziki trebatu zaie. Horietan pertsonen barruko eta horien arteko abileziak garatu eta landu dira. Taldeko coaching teknikak garatu dira eta saioak dinamizatze arduratu den coachak zuzendu ditu.

BIGARREN FASEA:

Hurrengo bi hilabeteetan partaideek ekiteko oinarrizko alderdiak, sormena eta negozio aukera berriak landu dituzte. Era berean, beren proiektuekin tokiko merkatuaren azterketa egin da eta eskualdean negozio aukera berriak hauteman dira. Prestakuntza guztia lankidetzan burutu da eta, horri esker, sinergiak eratu eta ezagutza nahiz esperientziak zabaldu dira, taldea diziplina askotakoa eta heterogeneoa baitzen. Aldi berean, negozio eredia garatzeko lan pertsonalizatua gauzatu da eta banako aholkularitzaz baliatu da.

HIRUGARREN FASEA:


2017. urtean aurreko faseetan sortutako enpresak abian jarriko dira. Laguntza ekonomikoa: partaideko 5.000 € eta enpresako 2.000 € gehiago, aholkularitza berezira.

TALDEKA PROGRAMA - EMAITZAK - 2016


	EZKERRALDEA - MEATZALDEA	BILBO	URIBEKOSTA - GETXO - LEIOA - ERANDIO	SENIORRA
Eskatzaileak	53	38	58	58
Partaideak prestakuntza fasean	20	20	20	20
Negoio planak	18	15	2017. urtean garatuko dira	
Sortutako enpresak	2017. urtean sortuko dira			

TALDEKA PROGRAMA - ESTATISTIKAK - 2016

PARTAIDEEN PROFILA SEXUAREN ARABERA
GUZTIRA: 207




PARTAIDEEN PROFILA ADINAREN ARABERA
GUZTIRA: 207




(1) Senior deialdiko taldearen adina ez da kontuan hartu, 45 urtetik gorakoak izan behar baitzuten.

PROIEKTUAK JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA
EZKERRALDEA-MEATZALDEA



BILBO





ELKARREKIN EKINEAN

ENPRESEN SORKUNTZA

DEFINIZIOA:

2016. urtean Demak programa bat jarri du abian, ekintzailletza eta gizarteratzea bateratzeko, gizartearen eta pertsonaren beraren ikuspegitik ahulak diren pertsonentzat. Izan ere, mendekoa den Foru Sailaren interesekoa da.

HARTZAILEAK:

Gizartearen eta pertsonaren ikuspegitik ahultasun egoera dauden emakumeak.

HELBURUAK:

- Hartzaileen gaitasun ekintzaileak sustatzea, enplegarritasuna, gizarte eta lan baldintzak nahiz bizi kalitatea hobetzeko.*
- Emakume partaideen autoestimua, autonomia eta jabetasuna pertsonala sendotzea eta banakako edo taldeko ekintzailletza proiektua abian jartzeko gaitasuna hobetzea.*
- Gizarte eta kooperazio ekintzailletzaren ereduak sustatzea.*

ELKARREKIN EKINEAN - EMAITZAK - 2016

Eskaerak	55
Partaideak	15
Negozio-planak	14

Abenduaren 31n negozio planak amaitzen ari ziren, 2017. urtean zehar enpresak abian jartzeko.

Era berean, 2017ko lehenengo hiruhilekoan Bilbon lurraldeen arteko topaketa egitea aurrez ikusia dago eta foru programa honetan parte hartzen duten emakumeak izango dira, beste autonomia erkidego batzuetan lankidetzaren ekintzailtzaren programetan esku hartu duten emakumeekin batera.

Programa hau ColaBoraBora gizarte ekimeneko kooperatibaren laguntzaz egin da, pertsonetan oinarritutako berrikuntza eta lankidetzaren inguruneak eta prozesuak diseinatzen eta eskuratzen aditua baita.



ANEZKA PROGRAMA

ENPLEGURAKO ETA EKINTZAIETZA
SOLIDARIORAKO ANEZKAK

DEFINIZIOA:

Anezkak langabetuen talde heterogeneoak dira, borondatezkoak, aktiboak, gizartearen ikuspegitik ikusgaiak eta solidarioak. Koordinatzailearen laguntzaz antolatzen dira, bai beste baten kontura, bai norberaren kargura enplegua bila dezaten bultzatzeko, kide guztiak lan merkatuan sartzeko bideak eta moduak arakutzen baitituzte.

HELBURUA:

Partaide guztien gaitasun pertsonalak eta enplegarritasuna hobetzea.

HARTZAILEAK:

Langabetuak, jarduera eskualdeetan erroldatuak badaude.

2016ko JARDUERA:

11 anezka jarri dira abian eta guztira 208 langabetuk parte hartu du, Bizkaiko zortzi eskualdetan zehar banatuak.

EMAITZAK

- 208 partaide, % 69 emakumeak.
- Bizkaiko eskualdeetatik % 67k parte hartu du.
- % 68 lan merkatuan sartu da.

ANEZKA PROGRAMA - EMAITZAK - 2016

ANEZKAK	PARTAIDEAK	KOKAPENA	AMAIERA EGUNA
I BILBAO	21	BILBO (Eutokia eraik.)	2016ko ekaina
II BILBAO	23	BILBO (Asle eraik.)	2017ko martxo
III BILBAO	15	BILBO (Foru Agiritegiko eraik.)	2017ko maiatza
I-EZKERRALDEA	22	BARAKALDO (Dema)	2016ko ekaina
II-EZKERRALDEA	24	BARAKALDO (Dema)	2017ko martxo
ENKARTERRI	24	BALMASEDA (udaletxea)	2016ko ekaina
NERBIOI-IBAIZABAL	17	ARRIGORRIAGA (udaletxea)	2017ko martxo
URIBE	23	SOPELA (udaletxea)	2017ko martxo
MEATZALDEA	18	TRAPAGARAN (udaletxea TGA)	2017ko martxo
BUSTURIALDEA	13	BERMEO (Behargintza)	2017ko martxo
DURANGALDEA	8	ERMUA (Izarra eraik.)	2017ko martxo
GUZTIRA	208		

ANEZKAK BIZKAIAN ESKUALDEEN ARABERA





PRESTIK EZKERRALDEA 2016

DATU OROKORRAK

PROGRAMAZIOA

- *DATA:* 2016ko urriaren 20 eta 21a
- *LEKUA:* Portugaleteko Nautika Eskola. UPV/EHU
- *WEB orria:* www.prestik.net

HELBURUA:

- *Enpresen, ikastetxeen eta erakunde publiko nahiz pribatuen "topaketa gune" izatea, Bizkaiko pertsonen lanbide etorkizuna orientatzeko. Xede horrez, Bizkaiko enplegu, ekintzailtza eta prestakuntza programa eskuragarri guztiak aditzera emango dira eta arreta berezia eskainiko zaie Ezkerraldeari eta Meatzaldeari.*
- *Sektoreko profesionalen deialdia egitea, Bizkaiko enplegu, prestakuntza eta ekintzailtzaren egoerari eta joerei buruzko jakintza sortzeko eta ezagutarazteko.*

HARTZAILEAK:

- *Gazte ikasleak edo enplegua eraginkortasunez bilatzen ari direnak, Bizkaian haien esku dauden lanbide eta lan garapenerako aukeren berri izan nahi badute.*
- *Gazte ekintzaileak, beren negozio ideia garatzeko edo enpresa proiektua abian jarri ala finkatzeko orientabidea nahi badute.*
- *Enplegu, prestakuntza eta ekintzailtzaren sektorean profesionalak, sektoreko berrietan eguneratuak egon nahi badute.*

EDUKI NAGUSIAK:

ERAKUSGUNEA:

Bizkaiko enplegu feriarik garrantzitsuena da eta erakusgune zabala du Bizkaiko 74 erakunde publiko eta pribaturekin, prestakuntza, enplegu eta ekintzaitzaren eskaintza guztia adierazteko. Arreta berezia jartzen zaie Ezkerraldeko eta Meatzaldeko eskualdeei.

JARDUNALDI TEKNIKOAK:

Jardunaldi teknikoaren programazio paraleloa egon da 5 aretotan. 34 hitzaldi/tailer eta 8 mahai inguru antolatu dira auditorioan. Guztira 70 hizlarik parte hartu du.

PRESTAKUNTZA:

- LHko lanbideen erakustaldi handia.
- LHko zentroak eta elkarteak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak.
- Prestik Global Job: graduondoko ikasketen eta Erasmusen gaineko argibide guztiak.

ENPLEGUA:

- Gazteen Enpleguari buruzko I. Foroa: adi gauzkazu.
- Enplegu atariak, enpresa enplegatzaileak, toki garapeneko agentziak, lanerako orientazioaren arloko erakundeak etab.
- Lantegi irekia: "Baliatu ezazu zure 2.0 talentua"
- Video speech gunea: praktikatu zure bideo-aurkezpena
- Etorkizuneko lanpostuak: sektoreak goranzko lanbideekin (bideo jokoak, berrikuntza soziosanitarioa, industria turismoa, ingeniari-tza eta osasuna, LHan berrikuntza).

EKINTZAITZETA:

- Lantegi irekia: "Networking-a ekintzaileekin"
- Ekintzaitzeta sustatzeko erakundeak Bizkaian

PRESTIK ZIFRATAN

ERAKUSGUNEA

Bisitarien kopurua	6.000
Erakunde erakusleen kopurua	74
m ² erakusgune	3.000

JARDUNALDI TEKNIKOAK

Areto kopurua	5
Hitzaldiak eta tailerak	34
Mahai inguruak (auditorioa)	8
Hizlariak	70
Partaideak hitzaldi eta taileretan	3.000



BIZKAIKER

BIZKAIKO ENPLEGU BEHATOKIA

2016. urtearen hasieran, DEMAk Bizkaiker web orria sortu zuen, hain zuzen ere, enplegu behatokia, Bizkaiko herritarrei enplegarritasunarekin zerikusia duten gaiak hurbiltzeko. Web orri honek hurrengo helburuak ditu: eskualdean eta tokian ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibotik lan-merkatuaren funtzionamendua eta bilakaera ulergarriago bihurtzea.

Bizkaiker behatokia Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eskura jartzen duen tresna da, Bizkaiko lan-merkatua eta produkzio-egoera aztertzeko. UPV/EHUren laguntzaz, DEMAk kudeatzen du.


ZER ESKAINTZEN DU BIZKAIKER WEB ORRIAK?

Lan-demografia: orri honek langabetuen banaketari buruzko informazio zehatza eta eguneratua eskaintzen du, sexuaren, adinaren, ikasketa mailaren eta langabezia egoeran emandako denboraren arabera. 5.000 biztanletik gorako udalerriei eta eskualdeei erreparatzen zaie.

Enpresen demografia: halaber, enpresa kopuruari buruzko informazioa ematen du. Azkeneko 12 hilabeteetan udalerrri eta eskualde bakoitzeko enpresa juridikoak eta fisikoak ageri dira, baita antzinasunaren, jarduera sektorearen eta enpresa mota bakoitzaren alta eta bajen araberako banaketa ere.

Laguntza-erakundeak: azkenik, udalerrri eta eskualde bakoitzean enplegu eta ekintzaitzarako erakundeen inguruko informazio zehatza azaltzen da.

Web orri honetako informazioa hurrengo datuei esker egituratzen da: Lanbidek argitaratutako langabezia datuak, Foru Ogasunaren JEZaren erregistro datuak eta behatokiaren lana burutzeko DEMAK kudeatzen dituen beste datu base batzuk. Informazioa sei hilez behin eguneratzen da, urte bakoitzari dagozkion martxoko eta urriko datuekin.





Barakaldo Ekartegia - Fanderia, 2
48901 Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94 418 90 55
Fax: 94 437 94 36
info@dema.eus
www.dema.eus